

Ikastolara sarrera Ate Nagusitik egingo da (Arkutik), eta Idazkaritza ondoko sarreratik Harmailetara joan beharko da. Ikasleak markatutako lekuan zain egon beharko dute segurtasun tartea errespetatuz.

Eguerdian etxera bazkaltzera joaten diren ikasleentzako irteera eta sarrera aipatutako leku beretik egingo dira.

IRAILAK 7-11 BITARTEAN.

Aste honetan zehar, ikasleak 8:45-9:00 bitartean sartuko dira geletara Harmailetako ate nagusitik. Haurra tutore batek jasoko du eraikinaren sarreran, eta bere gelara bideratuko du tenperatura hartu eta eskuak garbitu ondoren.

- **Horretarako garrantzitsua da aipatutako orduan egitea sarrera, ez arinago ez beranduago.**
- **Ikasleak lagunduta badatoz (familia, zaintzaile...), laguntzaile bakarraz etorriko dira.**
- **Ikaslea orduz kanpo badator, idazkaritzaatik sartuko da, tenperatura hartuz eta eskuak garbituz.**

Ikasleak eguerdian, **12:30** aterako dira klasetik. Ikaslea BAZKALTZEN GELDITZEN BADA irteera **14:30tan izango da**, markatutako ibilbide berdinetik.

Behin umea hartuta, ezin izango da ikastolan gelditu.

Umeen autonomia dela eta ez da familientzako itxaron gunerik egokituko.

SARRERA-IRTEERA



IKASGELETARA SARRERA-IRTEERA

